

<http://ikas.eus/spip.php?article1664>



Kalapita - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 21a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak



Kalapita Kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz gerizatua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.
©Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

Anai-arrebak ordenagailuaren aitzinean dira. Ama gelaren erdian jarririk.

Mutikoa: Are! Ene aldi orain!

Neska: Goaita, ez dut bururatua.

Mutikoa: Ez, errana genuen aldizka ariko ginela.

Neska: Bai, baina ene aldi da oraino.

Mutikoa: Beti hola da zurekin. Beti zuk nahi duzuna egin behar dut.

Neska: Erraten dizut gero utziko dizudala.

Mutikoa: Orain nahi dut!

Neska: Horra, beraz, mutiko hastiela!

Mutikoa: Zu, bai, neska tetelea.

Neska: Zer? Errepika ezazu erran duzuna!

Mutikoa: Neska purtzila!

Neska: (papotik hartuz) Zer? Zanpaldi bat nahi duzu?

Mutikoa: Ama, ama! Mirentxuk jo nahi nau!

Neska: Ez, ez da egia! Hura da hasi!

Mutikoa: Ez, harengatik da;! Ez zidan ordenagailua utzi nahi.

Neska: Ez nuen bukatua eta...

Ama: Isil zaitezte! Beti hola da zuekin! Beti mokoka bukatu behar duzue! Emanen dizuet nik prestuki egoiteko denbora-pasa bat: bakoitza ar dadila orain bere ganbararen garbitzen! Zuen logelak ontsa ordenaturik eta garbi ezar itzazue!

Neska: Zuregatik da! Zure mindulinkeriengatik!

Mutikoa: Eta zu, zure ipurdia handiarekin!

Neska: Zer?

Ama: Aski! Eta orain lanera!

Bi haurrak ateratzen dira bakoitzak besteari begitarte ilun bat eginez. Ama berriz jartzen da eta erdi ametsetan gelditzen.

Ama: Zer isiltasuna! Baina noiz arte bakea?

Jokolariak: Bi anai-arreba eta haien ama.

Autorea: Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea: Ikas

Argitaratze data: 2010/12/21